BERMEOKO UDALA

## Xedea

Bermeoko udalerrian papera eta kartoia gaika biltzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea

### BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIAREN ADOSTASUN OHARRA

Idazkaritzako AOTren 2021eko ekainaren 29ko erabaki-proposamenari txostena egin zaio (KON_IRE_0010 espedientea), Bermeoko udalerrian papera eta kartoia gaika biltzeko zerbitzuari buruzkoa.

Espedientean Idazkaritzako AOTren txostena dago, 2021eko ekainaren 29koa.

Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.b) artikuluak ezartzen du nahitaezko lege-aholkularitzaren eginkizuna aldez aurreko txostena egitea dela, lege- edo erregelamendu-manuren batek hala ezartzen badu. Zentzu horretan, SPKLren Hirugarren Xedapen Gehigarriak, 8. atalean, adierazten du nahitaezkoa dela idazkaritza-lanpostua betetzen duen pertsonaren txosten juridikoa, kontratazio espedienteak onartzeari buruzko prozeduretan.

Aurrekoarekin lotuta, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.4 artikuluaren arabera, idazkariaren txostena adostasun ohar batean eman ahal izango da, udalaren zerbitzuek emandako txostenei dagokienez, eta espedientean txosten juridiko gisa agertzen badira.

Horrenbestez, **ADOSTASUN-OHARRA** egiten da espedientearekin bat doan txosten juridikoari. Txosten hori Idazkaritzako AOTk egin du, arestian aipatu den bezala.

Orri oinean, sinadura eta data.

CSV: 07E50007328000V5P5Z8S1Q6A5